Udaletxearen aurrean dagoen Zubialde plazatik irtengo gara, eta, errepidea gurutzatu ondoren, Barbatxao eta Ereñotza auzoetara igoko gara. Barbatxao auzoa zeharkatutakoan, saihesbide txikia hartuko dugu, eta Santomaszarraren baseliza ikustera joango gara. Iturrizarren arabera, gainera, Zeberioko antzinako parrokia izan zen. Bide asfaltatuak Ereñotza auzora eramango gaitu, eta, bertan, elizbide zaharra hartuko dugu, hau da, auzokoek Andra Maria baselizara joateko erabiltzen zuten bidea. Baseliza hori, hain zuzen ere, Zeberiogane izeneko muinotxoan dago, eta, bertatik, bailarako eta Gorbeiako parke naturaleko ikusmira ederrez gozatuko dugu. Ametzola auzo hurbilera doan errepidea hartuko dugu berriro. Bide asfaltatua amaitu egingo da, eta bailara babesten duten mendietarantz (Mandoia, Upo, Artanda...) doan mendi-bidea hasiko da. Antzina, bailarok zeharkatzen zituzten mandazainek, merkatariek eta auzokoek erabiltzen zituzten bide hauek.

15 minutuz lasai-lasai igo ondoren, Irumugarrietara iritsiko gara. Mandoia mendiaren magaletik igotzen jarraituko dugu, harik eta malda gogorraren ostean gailurrera iritsi arte (637 m). Ibilbideko tarte horretan, Zeberioko bailararen ikuspegi zoragarriez gozatuko dugu. Gailurretik bertatik, berriz, gure lurraldeko mendi nagusiak, Urkiolako zein Gorbeiako parke naturalak eta Arratiako zein Ibaizabalgo bailarak daude ikusgai.

Mendiko ibilbide estuak berriro eramango gaitu Etxazo auzoraino jaisten den mendi-bidera. Bertan, gainera, San Esteban baseliza ikusi ahal izango dugu. Etxazotik, Orbetzura joango gara, eta, horretarako, Gorositu auzoa zeharkatuko dugu. Orbetzura iritsitakoan, lehenengo baserriaren alboan eta gure eskuinean dagoen bideak Barañao auzoko San Antonio baselizarantz eramango gaitu. Honen hormetako batean, leiho bitxia dago, baseliza bera baino zaharragoa dena.

Barañaotik, Ibarrondo ibaiko erriberara jaitsiko gara, eta, ibaian gora, izen bereko auzoraino iritsiko gara. Auzunea gurutzatu ostean, igotzen jarraituko dugu, harik eta arroa inguratu ondoren mendi-bidea berriro jaisten hasi arte. Bertan behera utzitako Apalagabekoa baserritik hurbil dagoen seinaleak Argiñaoko San Adrian baseliza ikusteko gonbitea egingo digu. Baseliza muino baten gainean dago, eta honek ere horma baten beste leiho bitxi bat dauka. Zenbait historialariren arabera, pieza monolitiko horiek XI. mendekoak izan litezke.



Zeberiogana

Argiñao auzo lasaira eramango gaituen bidea hartuko dugu berriro. Mendibide eta bide zaharretan zehar, Ibarrondo ibaiko erriberara jaitsiko gara berriro. Errege-bidea hartu eta Ermitabarri auzora helduko gara, Ibarrondo auzoa zeharkatu eta gero. Lurrezko geruza finak antzinako galtzadako harriztadura zaharra estaltzen du, tarte batzuetan agerian geratzen dena.

Auzoan bertan, Olabarrietako Santo Tomas eliza nabarmendu beharra dago. Bere elizpean biltzen eta bedeinkatzen zituzten Gorbeiako bazkalekuetara uda pasatzera eramaten zituzten artaldeak. Ermitabarrin, mendiko ibilbide honen saihesbideetako bat hasten da, eta transhumantziarako bide horren zati bat zeharkatzen du (PR-BI 11.1).

Mendiko ibilbide estua hartu eta Zubibarrira itzuliko gara, hariztiak, pinudiak, baso mistoak eta errekasto bat edo beste zeharkatu ondoren. Zeberio ibaiak ibilbidearen amaierara heldu garela adierazten digu.



Etxazo

Partimos de la Plaza Zubialde, frente al ayuntamiento, para tras cruzar la carretera ascender a los barrios de Barbatxao y Ereñotza. Una vez atravesado el barrio de Barbatxao un pequeño desvío nos invita a visitar la ermita de Santomaszarra, según Iturrizar antigua parroquia de Zeberio. El camino asfaltado nos lleva al barrio de Ereñotza, donde accedemos al viejo elizbide, camino que utilizaban los vecinos para acudir a la ermita de Andra Maria. Ésta, se encuentra en el pequeño promontorio de Zeberiogane, desde donde podremos disfrutar de unas espléndidas vistas del valle y del Parque Natural de Gorbeia. Retomamos la carretera dirección al cercano barrio de Ametzola. El camino asfaltado llega a su fin, dejando paso a una pista que se dirige hacia los montes que protegen el valle (Mandoia, Upo, Artanda...). Son los mismos caminos que fueron utilizados por arrieros, mercaderes y vecinos a su paso por estos valles.

Después de una suave subida de unos 15 minutos llegamos a Irumugarrieta. Continuamos ascendiendo por la ladera del monte Mandoia, a donde nos dirigimos. En este tramo del recorrido podemos disfrutar de una espléndida panorámica del valle de Zeberio. Una fuerte pendiente nos indica que estamos llegando a la cima de Mandoia (637m). Esta cima centenaria nos deleita con una bella panorámica de las principales cimas de nuestro territorio, los parque de Urkiola y Gorbeia, y los valles de Arratia e Ibaizabal.



Mandoia

Un estrecho sendero nos lleva de vuelta a la pista que desciende hasta el barrio de Etxazo, donde podemos visitar la ermita de San Esteban. Desde Etxazo nos dirigimos a Orbetzu, pasando por el barrio de Gorositu. Nada más llegar a Orbetzu, junto al primer caserío, un camino parte a nuestra derecha hacia la ermita de San Antonio, en el barrio de Barañao. En una de sus paredes encontramos una curiosa ventana, más antigua que la propia ermita.

Desde Barañao descendemos hasta la ribera del Ibarrondo, donde nos dirigiremos aguas arriba hasta el barrio del mismo nombre. Tras cruzar este pequeño núcleo continuamos ascendiendo, hasta que la pista, una vez bordeada la cuenca, comienza nuevamente a descender. Una señal cercana al abandonado caserío de Apalagabekoa nos invita a visitar la ermita de San Adrián de Argiñao. Ubicada en un alto, esta ermita nos muestra en una de sus paredes otra curiosa ventana. Según algunos historiadores estas piezas monolíticas podrían datar del s.XI.



San Adrián



Santo Tomás

Retomamos el camino que nos llevará hasta el tranquilo barrio de Argiñao. Por pistas y viejos caminos descenderemos nuevamente a la ribera del río Ibarrondo. Siguiendo el trazado del Camino Real llegaremos al barrio de Ermitabarri, pasando por el de Isasi. Una fina capa de tierra cubre el viejo empedrado de la antigua calzada, que queda al descubierto en algunos tramos.

Destaca en este barrio la iglesia de Santo Tomás de Olabarrieta. Bajo su pórtico se reunían y bendecían los rebaños que, llegado al verano, iban a ser trasladados a los pastos de Gorbea. Desde Ermitabarri parte una de las variantes de este sendero, que recorre parte de esta vía de trashumancia (PR-BI 11.1).

Un estrecho sendero nos llevará de vuelta a Zubibarri, cruzando robledales, pinares, bosques mixtos y algún que otro arroyo. El río Zeberio nos indica recuerda que el recorrido ha finalizado.



Artea / Encina
(Quercus ilex)



Haritza / Roble
(Quercus robur)



Sai arrea
Buitre leonado
(Gyps fulvus)



Azeria
Zorro
(Vulpes vulpes)




| Zeberio, barren barrenetik | PR-BI 11 | Zeberio, desde el interior |
|---|---|---|
| Ibilbidearen hasiera | Udaletxea (Zubialde) | Inicio del recorrido |
| Ibilbidearen amaiera | Udaletxea (Zubialde) | Fin del recorrido |
| Iraupena, gutxi gorabehera | 5 ord | Tiempo estimado |
| Ibilbidearen luzera | 18,5 Km | Longitud del recorrido |
| Gehienezko malda | 520 m | Desnivel máximo |
| Zailtasun maila | Altua / Alta | Dificultad |




| Interes puntuak | Puntos de interés |
|---|---|
| Zeberioganetik ikuspegi panoramikoa, Zeberioganeko Andra Mari (e), Mandoiatik ikuspegi panoramikoa, Etxazo auzoa, San Esteban (e), San Antonio (e), Apalagatik ikuspegi panoramikoa, San Adrian (e)... | Vista panorámica desde Zeberiogane, Andra Maria de Zeberiogane (e), Vista panorámica desde Mandoia, barrio de Etxazo, San Esteban (e), San Antonio (e), Vista panorámica desde Apalaga, San Adrian (e),... |

(e): ermita

Irudiak: A. Domínguez

# Z E B E R I O

PR-BI 11



# ZEBERIO

## ZUBIALDE-MANDOIA-ARGIÑAO-ERMITABARRI-ZUBIALDE